

DIRULAGUNTZAK:

# Euskal literaturaren itzulpena

## Euskal literaturaren itzulpenak sustatzen

Etxepare Euskal Institutuaren lan-ildo nagusietako bat euskal literatura nazioartean sustatzea da. Dirulaguntza hauen bidez euskal literaturaren itzulpena sustatzen da euskal idazleak eta hauen lanak nazioarteko merkatuan zabaltzen laguntzeko. Alde batetik, euskaraz idatzitako edo Euskal Autonomia Erkidegoko idazleek sortutako literatura-lanen itzulpen-gastuak laguntzen dira diruz. Bestetik, euskaraz idatzitako literatura-lanen laginen itzulpenak.

### Literatura-lanak


- Jatorriz euskaraz idatzi eta argitaratutako literatura-lanak edozein hizkuntzatarara itzultzea laguntzen da diruz.
- Jatorriz gaztelaniaz idatzitako lanen itzulpenak ere laguntzen dira, beti ere idazlea Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta badago eta xede hizkuntza euskara ez den beste edozein hizkuntza bada.
- Dirulaguntzak lehiaketa bitartez esleitzen dira eta eskaera guztiak sektoreko profesionalen osaturik balorazio batzorde batek aztertzen ditu.

### Literatura-lanen laginak

- Jatorriz euskaraz idatzi eta argitaratutako literatura-lanen laginak ingelesera edo frantsesera itzultzea laguntzen da diruz.
- Laginak ez dira izango liburuaren %15 baino luzeagoak.
- Egileak gutxienez bi lan izan beharko ditu argitaratuta, eta horietako bat gutxienez gaztelaniara itzulita.
- Dirulaguntzak lehiarik gabeko konkurrentzia bidez, osatutzat jotako hurrenkeran, esleitzen dira zuzkidura amaitu arte.

### Nork eska ditzake dirulaguntzak?

Dirulaguntzak argitaletxe, agente eta itzultzaile profesionali daude zuzenduta. Bere lanbide edo xedean artean argitalpen- eta itzulpen-lanak dituzten munduko edozein herrialdeetako pertsona fisiko eta juridikoek eska ditzakete.



## Eskaera epea

Dirulaguntzak eskatzeko epea urteko bigarren hiruhilekoan ireki ohi da. Literatura-lanen itzulpenak egiteko eskaerak elektronikoki, [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) webgunean, edo aurrez aurre, Etxepare Euskal Institutuan edo Zuzenean zerbitzuaren bidez, egin daitezke. Laginen itzulpenak egiteko eskaerak berriz posta elektronikoz bidali behar dira [etxepare@etxepare.eus](mailto:etxepare@etxepare.eus) helbidera.

Dirulaguntzen eskaera epe zehatza, beste data garrantzitsu batzuk, eta argibide guztiak [www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus) webgunean aurki ditzakezu.



## Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua erakunde publiko bat da. Gure helburua da nazioartean euskara eta euskal kultura eta sorkuntza sustatu eta ezagutzera ematea, eta hauen bidez, beste herrialde eta kulturekin harreman iraunkorrak erakitzea.

Horretarako kalitatezko jarduera artistikoak sustatu, eta sortzaile, artista eta kultur eta sektoreetako profesionalen mugikortasuna bultzatzen dugu, baita euskara eta euskal kulturaren irakaskuntza ere. Halaber, nazioarteko eragileekin elkarlana sustatzen dugu eremu kultural eta akademikoan. Horretan guztian estuki lan egiten du Euskadiren kanpo ordezkartekin.

### Etxepare Euskal Institutua

Tabakalera  
Andre zigarrongileen plaza, 1  
20012 Donostia / San Sebastián  
T. +34 943 023 400  
[www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus)



GRANTS:  
**Translation  
of Basque  
literature**

## Supporting the translation of Basque literature

One of the main endeavours of the Etxepare Basque Institute is to promote Basque literature around the world. Through our translation grants, we support the translation of Basque literature so that the work of Basque authors can reach an international readership. The grants subsidize the translation of literary works in the Basque language or by writers from the Basque Autonomous Community. The grants also cover the translation of samples of literary works written exclusively in Basque.

### Literary works covered by the grant

- The translation into other languages of literary works written and published originally in Basque.
- The translation (into languages other than Basque) of works originally written in Spanish by residents of the Basque Autonomous Community.
- Submissions must be tendered and will be evaluated by a committee of professionals from the literary sector.

### Samples covered by the grant

- The translation into English or French of samples of literary works originally written and published in Basque.
- Samples must not exceed 15% of the complete book.
- The author must have already had at least two works published and one of them translated into Spanish.
- The grants are awarded on a non-competitive basis, in the order the applications are received, within the application period.

### Who can apply for a grant?

The grants are aimed at publishers and professional translators and agents. Natural or legal persons who are professionally engaged in or whose functions include translation and editing may apply.

## Application period

The application period is usually in the second quarter of the year. Applications for translations of literary works can be made online at [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) or in person at the Etxepare Basque Institute or at the Basque Government's Zuzenean service. Applications for translating literary samples should be made by sending an e-mail to [etxepare@etxepare.eus](mailto:etxepare@etxepare.eus)

The application dates and full information concerning the grants can be found on the [www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus) webpage.



## Etxepare Basque Institute

The Etxepare Basque Institute is a public agency dedicated to promoting Basque language, culture and creative talent internationally, and to building lasting relationships with other countries and cultures in these areas.

To this end, we foster quality artistic activities and support the mobility of artists and cultural industry professionals, as well as teaching Basque language and culture. We also encourage collaboration with international stakeholders in both the cultural and academic fields, working closely with the official Basque delegations abroad.

### Etxepare Euskal Institutua

Tabakalera  
Andre zigarrigoleen plaza, 1  
20012 Donostia / San Sebastián  
T. +34 943 023 400  
[www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus)

